Guztira / Total		7.815,53		
Gauzatze gradua / Grado de ejecución: %		22,33		

Programaren datu orokorrak

Departamentua:	02 - GOBERNANTZA DEPARTAMENTUA
Atala:	0220 - Zerbitzuetako eta Administrazioaren Berrikuntzako eta Eraldaketako Zuzendar
Programa:	200 - Foru Aldundiko zerbitzuen berrikuntza eta eraldaketa
Funtzionala:	920 - Administrazio orokorra

Programa mota:

Finalista

Misioa:

Programa honen misioa da Foru Aldundian gobernantza ona, kudeaketaren hobekuntza eta berrikuntza sustatzea, herritarrei ematen dizkiegun zerbitzuak hobetzeko eta gizartearen beharrei modu eraginkorrean erantzuteko helburuarekin. Horretarako kudeaketa-metodologia, lan tresna, informazio-sistema eta komunikazio-kanal aurreratuak ezartzen laguntzen diegu Departamentuei.

Egoeraren diagnostikoaren eboluzioa:

Aldundiak 2020-2023 legealdirako Plan Estrategikoan helburu estrategiko bezala ezarri du erakundean eraldaketa bultzatzea, gobernantza ona, kudeaketa aurreratua eta berrikuntza sustatuz. Administrazioaren Berrikuntzako eta Eraldaketako Zerbitzuan helburu hau betetzeko ekintzak garatzen aritu gara 2022. urtean. Alde batetik, erakundeko zuzendaritza nagusietan Aurrerabide Kudeaketa Aurreratuaren Eredua ezartzen eta bultzatzen aritu gara. Arlo honetan ez dugu izan hasiera batean aurrikusi genuen aurrerapen maila, izan ere kudeaketa aurreratua ezartzea asko kostatzen ari da administrazio-unitateetan, eta eremu askotan ez dugu lanketa abian jartzeko aukerarik izan. Horrela, aurrikusita genituen zuzendaritzen %48an besterik ez dugu izan aukera Aurrerabide lanketa abian jarri eta plana garatzen hasteko. Datorren urteetan, zentzu honetan, lanean jarraitu beharko dugu, batez ere departamentuei erraztuz kudeaketa aurreratuak garapenean bideari ekin diezazioten. Helburu hau 3. Aurrerabide Planean jasoko dugu.

Eraldaketa beste arlo garrantzitsu bat Digitalizazioarena da, batez ere 2021-2025 Eraldaketa Digitaleko Plana (EDP) onartu genuenetik. 2022. Urtean EDP garatzeko beharrezko antolamendu-egitura abian jarri dugu, eta departamentuekin lankidetzan digitalizazioaren estrategia sistematizatu eta garatzeari ekin diogu. Orain arte landu ditugun digitalizazioko arloez gain (batez ere Administrazio Elektronikoaren garapena), arlo berriak garatzen eta sustatzen hasi gara; hala nola, datuen gobernantza, adimen artifiziala, gaitasun digitalak edo zerbitzuak herritarrengana orientatzea. Datorren urteetan garapen horri eustea izango da gure helburua, eta EDPari beharrezko baliabideak eta egiturak hornitzen saiatuko gara.

Azkenik, foru Aldundian Gobernu Onaren arlo ezberdinak ezartzea da gure zerbitzuaren hirugarren lan-eremu garrantzitsu bat. Zentzu honetan, 2022. urtean Erakundearen Zuzentasun Sistema zabaldu eta indartu dugu, bi kode etiko berri onartu ditugularik, eta Interes Taldeen Errolda ezartzeko lanketa guztia egin dugularik. Zuzentasunaz gain, Gobernu Onaren beste arlo batzuk garatuko ditugu hurrengo urteetan. Besteak beste, politika publikoen ebaluazioa, plangintza eta kontu ematea sistematikoa, eta gobernu irekiaren ezarpen osoa.

Behararen eboluzioa:

Azken urteetan foru Aldundiko arlo ezberdinetatik kudeaketako modu berriak sustatzen ari gara, Lankidetzazko Gobernantza eta Gobernu Onaren printzipioak oinarri ditugula. Hori dela eta, departamentuei eta administrazio-unitateei hainbat tresna eta metodologia ezartzea eskatzen diegu. Hori dela eta, badirudi saturazio antzeko bat dagoela erakundean eta kudeaketa era berriak ezartzeko ezintasuna. Horregatik, beharrezkoa dugu gure zerbitzutik bultzatzen ditugun ekimenak garrantziaren arabera ongi lehenestea, gainerako zeharkako arloekin koordinatzea, erakundean komunikazioa ongi lantzea, eta ahalik eta era sinpleenean gai hauek lantzeko laguntza eta aholkularitza eskaintzea.

Bestalde, eraldaketa digitalaren arlo ezberdinak erakunde mailan eta era estrategikoan kudeatzea bultzatu nahi dugu, eta digitalizazioko proiektu egokienak identifikatu eta garatzea. Horretarako, beharrezkoa dugu departamentu guztiekin elkarlana bultzatzea eta kudeaketa estrategiko hori egiteko beharrezkoak diren espazioak, egiturak eta baliabideak lortzea.

Datorren hilabeteetan helburu hauek landuko ditugu, erakundearen eraldaketa lortzeko palanka modura.

Nori zuzendua:

- GFako Departamentuak, Zuzendaritza Nagusiak eta Zerbitzuak: gobernantza ona, kudeaketa aurreratua eta administrazio elektronikoa ezartzeko laguntza eta aholkularitza eskaintzen zaie.
- Herritarrak, enpresak eta elkarteak: kanal ezberdinetan komunikazio, informazio eta arreta zerbitzuak eskaintzen zaizkie.
- Udalak eta beste administrazioak: lan arlo guztietan aholkularitza eta laguntza teknikoa eskaintzen zaie.

Programaren estrategia.

1. Baliabideak (inputak):

Aurrekontuak, pertsonalaren dedikazioa, kanpo aholkularitza, baliabide teknologikoak eta aholkularitza teknikoa (IZFE).

2. Garatu beharreko

- Kudeaketa aurreratuan Aholkularitza ematea: 2. Aurrerabide planaren ezarpena gauzatzea, zerbitzuen kudeaketa hobetzeko laguntza emanez eta kudeaketarako tresnak ezartzen lagunduz.

- Gobernantza ona sustatzea: Gobernu Irekiaren eta Gobernu Onaren funtsezko baloreen eta ezaugarrien ezarpena zuzentzea eta koordinatzea (Zuzentasun Sistema, gardentasuna, datu irekiak)

- Kanal anitzetako arreta eta Infomazioa: Aldundiaren aurrez aurreko, telefono bidezko eta Internet bidezko arreta eta informazio orokorra ematea.

- Aplikazio Korporatiboak garatzea: Aldundiko aplikazio korporatiboak diseinatu, ezarri eta mantentzeko laguntza ematea.

- Eraldaketa digitala bultzatzea proiektu ezberdinetan: datuen kudeaketa (big data, open data), adimen artifiziala, azpiegiturak, pertsonalaren prestakuntza, etab.

- Informazioaren Segurtasuna eta Datu Pertsonalen Babesa: Informazioaren segurtasunaren kudeaketa aurrera eramateko laguntza ematea.

3. Ondasun eta Zerbitzuak (outputak):

- Arlo ezberdinetan aholkularitza teknikoa.

- Hobekuntza proiektuak: kudeaketa aurreratuko ereduaren inguruan eta metodologia eta tresna ezberdinen inguruan.

- Aplikazio korporatiboak: erakunde osoan erabiltzeko diren aplikazioak eta hauen mantenua eta hobekuntza.

- Administrazio Elektronikoa garatzeko sistemak eta aplikazioak, eta hauek ezartzeko laguntza teknikoa.

- Gardentasuneko edukiak eta datu irekiak argitaratzeko laguntza eta baliabide teknologikoak.

- Informazioaren segurtasuneko eta datu pertsonalen babeseke arloan aholkularitza.

Programaren arau esparrua:

- Prozedura Administratibo Orokorreko 39/2015 Legea

- Sektore publikoaren araubide juridikoko 40/2015 Legea.

- 4/2019 Foru Araua, Gobernu Onari buruzkoa, foru gobernantza publikoaren esparruan

- Foru Administrazioaren eremuan bitarteko elektronikoen erabilera arautzeko 23/2010 Foru Dekretua

- Administrazio Elektronikoko 11/2007 Legea

- Gipuzkoako Foru Aldundiaren herritarrentzako laguntza eta arreta zerbitzuak arautzen dituen 26/2005 Foru Dekretua

- Datuk Babesteko Erregelamendu Orokorra

- Administrazio arloko arautegi orokorra


2020-2023 KUDEAKETA PLAN ESTRATEGIKOARI LOTUTAKO DEPARTAMENTU JARDUKETA

Urteko helburua: Erakundearen kudeaketa hobetu eta berritzea, izan dadin erakunde hurbilago, irekiago eta eragimen handiagoko bat.


Adierazlea	Neurri-unitatea	Azken balioa	2022-ko Aurreikuspena	2022-ko Errealia	Agintaldiko helburua
Foru Jauregiko informazio eta arreta bulegora doazen pertsonen zuzendutako inkestaren "Asebetetze maila orokorra" eremuan lortutako batez besteko puntuazioa	Kopurua	9,00	9,40	9,55	9,40
Kudeaketa Aurreratuen eredia ezarri duten edo urrats bat eman duten Zuzendaritza Nagusien %	Ehunekoak	44,00	35,00	48,00	100,00
Internet bidez egin daitezkeen izapidetzen ehunekoak.	Ehunekoak	85,00	85,00	90,00	95,00

Joera


Foru Jauregiko informazio eta arreta bulegora doazen pertsonei zuzendutako inkestaren "Asebetetze maila orokorra" eremuan lortutako batez besteko puntuazioa – Kopurua



Kudeaketa Aurreratuaren eredia ezarri duten edo urrats bat eman duten Zuzendaritza Nagusien % - Ehunekoa



Internet bidez egin daitezkeen izapidetzen ehunekoa. - Ehunekoa



Memoria

2022ko lehenengo hiruhilabetekoan, gardentasunaren eta Gobernu Irekiaren alorrean, 2021. urteko txostenak prestatzen aritu gara: gardentasuneko betekizunen betetze-mailari buruzko txostena alde batetik, eta kontsulta, keza eta iradokizunen txostena bestetik. Kudeaketa aurreratuaren alorrean, Aurrerabide ereduaren ezarpenaz gain, foru Aldundiko lankideei zuzendutako ikastaroa antolatu dugu, urtero bezala. Gainera, Gizarte Politikako Departamentuko zerbitzu baten prozesuen araberako antolaketaren ebaluazio-txostena burutu dugu. Eraldaketa Digitalaren arloan, lantalde tekniko ezberdinen koordinazioa egin dugu, eta lantalde interdepartamentalaren lehenengo bilera antolatu dugu, hemendik aurrera EDP planaren jarraipena egingo duena. Gaitasun digitalen arloan, Microsoft Office 365 plataformaren inguruko prestakuntza burutu dugu telelana egiten duten pertsonentzat, eta ikastaroaren balorazioa egin dugu etorkizunean berriro antolatzeari begira. Gainerako digitalizazioko arloetan batez ere GFAn abian dauden eta aurreikusita dauden digitalizazioko proiektuak identifikatzen aritu gara, lantaldeetatik proiektu nagusien jarraipena eta bultzada egiteko.

Bigarren hiruhilabetekoan hainbat arlotan lan egin dugu: Zuzentasunaren eta Gobernu onaren alorrean, ekainean 4/2019 foru arauaren ebaluazio prozesua burutu dugu, kanpo aholkulari eta adituen partaidetzarekin, eta arauaren betetze maila neurtzeko adierazle-bateriarekin. Eraldaketa Digitalaren arloan, lantalde tekniko ezberdinen koordinazioa bultzatzen aritu gara eta planaren ekintza eta proiektuak abian jartzen. Besteak beste, Segurtasun Eskema Nazionalaren inguruko prestakuntza bat antolatu dugu foru sektoreko eta udaletako segurtasun arduradunentzat. Horretaz gain, GFAko Informazioaren Segurtasun Batzordearen bilera antolatu dugu eta bertara segurtasuneko neurri zehatzen plangintza bat eraman dugu, datorren hilabeteetan ezartzen joateko. Kudeaketa aurreratuaren alorrean, hobekuntzako proiektuak aurrera eramaten aritu gara, besteak beste, Estrategiako Zuzendaritzarekin batera Emaizetara Bideratutako Aurrekontuen egituren definizioa egiten lagundu diegu zenbait departamenturi.

2022ko hirugarren hiruhilabetekoan, kudeaketa aurreratuaren alorrean, erraztaileen sareari zuzendutako ekintza bat antolatzen aritu gara, komunikazioaren ingurukoa. Gainera, kudeaketa aurreratuko proiektu ezberdinak garatzen eta berriak identifikatzen aritu gara. Eraldaketa Digitalari dagokionez, udara ostean Eraldaketa Digitaleko Planaren ezarpenari ekin diogu berriro eta lantalde guztiak koordinatzeari. Erakundearen Zuzentasun alorrean, Gobernantza Onaren inguruko online formazioaren laugarren edizioa antolatzen aritu gara, azaroan abian jarriko dena, eta Interes Taldeen erregistroa arautuko duen foru dekretua prestatzen aritu gara. Honekin batera, erregistroa kudeatuko duen web orria eta aplikazio korporatiboa garatu ditugu.

2022ko laugarren hiruhilabetekoan eraldaketako hainbat arlotan aurreratu dugu: irailaren bukaeran Interes Taldeen Erregistroa arautzen duen foru dekretua onartu dugu eta ezarpenerako komunikazio plana eta materialak prestatu ditugu. Gainera, abenduan foru Aldundiko kargudun eta zerbitziburuei sistemaren aurkezpena egin diegu. Eraldaketa Digitalaren arloan, datuen eta adimen artifizialaren erabileraren gaineko kode etikoa garatzen aritu gara eta testua prest utzi dugu Kontseilura onartzera bidaltzeko. Gaitasun digitalei dagokionez, Microsoft Office 365 plataformaren inguruko bigarren ikastaroa bukatu eta ebaluatu dugu (EDP-ko lantaldeetan parte hartzen duten pertsonen zuzendutakoa). Honetaz gain, 2023ko proiektu digitalen identifikazioa burutu dugu departamentu guztien parte hartzearekin eta datorren urterako lehentasunak ezarri ditugu departamentuetako batzorde informatikoetan lantzeko. Kudeaketa aurreratuaren alorrean jarraitu dugu zuzendaritza ezberdinetan ezarpena bultzatzen, eta erraztaileen sarean komunikazioaren inguruko tailerra antolatu dugu. Herritarren arretari dagokionez, Ogasuneko eta Gizarte Politikako arreta bulegoetako langileei Arreta aplikazioa ezarri diegu eta erabiltzen erakutsi diegu, hemendik aurrera GFA osoko informazio orokorra ematen hasi daitezten.

Helburuari lotutako jarduketa ildoak eta ekintzak

1. Jarduketa ildoak:

Arreta zerbitzu aurreratua eta bateratua abiaraztea (bertatik bertarakoa, telefono bidezkoa, Internet bidezkoa, sare sozialen bidezkoa), arreta nahiz informazio osatu, eguneratu eta eskuragarria emateko.

Ordainketa kredituak

	Hasierako aurrekontua	Behin betiko aurrekontua	Gauzatzea	Sarrera lotua	Aurreratze gradua
Jarduketa ildo, guztira	577.054,47	577.054,47	527.844,52		
1.1 Ekintza					
Leihatila bakarreko sistemaren oinarri izango den informazio sistema korporatiboa garatzea eta arreta eta informazio prozesuak hobetzea.	551.373,90	551.373,90	505.791,83		100,00
1.2 Ekintza					
Herritarrekin komunikatzeko kanal berriak aztertzea eta garatzea.	25.680,57	25.680,57	22.052,69		45,00

2. Jarduketa ildo:

Gobernu irekia sustatzea, gardentasun eta kontu emate osatu eta ulergarri bat emanda.



% 100,00

Ordainketa kredituak

	Hasierako aurrekontua	Behin betiko aurrekontua	Gauzatzea	Sarrera lotua	Aurreratze gradua
Jarduketa ildo, guztira	103.217,50	103.217,50	91.675,45		
2.1 Ekintza					
Aldundiko datu baseak irekitzeko plangintza aurrera eramatea, datuak era irekian argitaratuz.	24.881,30	24.881,30	22.628,04		50,00
2.2 Ekintza					
Gardentasuneko eta kontu emateko edukiak bildu, prestatu eta argitaratzea.	70.042,44	70.042,44	61.504,74		100,00
2.3 Ekintza					
Gipuzkoa Irekia gobernu irekiko ataria mantendu eta hobetzea.	8.293,76	8.293,76	7.542,67		85,00

3. Jarduketa ildo:

Erakundearen zuzentasun sistema sakontzea, zuzentasunaren esparruan egon daitezkeen arriskuen identifikazioa eta prebentzioa hobetu eta aurreratzeko.



% 100,00

Ordainketa kredituak

	Hasierako aurrekontua	Behin betiko aurrekontua	Gauzatzea	Sarrera lotua	Aurreratze gradua
Jarduketa ildo, guztira	101.640,31	101.640,31	50.468,79		
3.1 Ekintza Zuzentasun Sistemaren inguruko prestakuntza eta zabalkuntza egitea.	12.386,79	12.386,79	11.265,04		75,00
3.2 Ekintza Zuzentasun Sistemaren berrikuntza eta hobekuntza.	13.293,76	13.293,76	9.202,21		60,00
3.3 Ekintza Gobernantza Onaren zabalkunderako eta sustapenerako ekintzak	75.959,76	75.959,76	30.001,54		85,00

4. Jarduketa ildo:

Administrazio elektronikoa eta eraldaketa digitala garatzea, desburokratizazioan sakonduta, «zero paper» helburuaz.



% 100,00

Ordainketa kredituak

	Hasierako aurrekontua	Behin betiko aurrekontua	Gauzatzea	Sarrera lotua	Aurreratze gradua
Jarduketa ildo, guztira	180.401,50	180.401,50	142.972,47		
4.1 Ekintza Foru Aldundiaren Eraldaketa Digitaleko Plangintza aurrera eramatea.	89.277,76	89.277,76	60.100,94		90,00
4.2 Ekintza Espediente Elektronikoa ezartzeko proiektuak identifikatu, bultzatu eta hauetan parte hartzea.	24.881,30	24.881,30	22.628,04		80,00
4.3 Ekintza Izapide berriak digitalizatzea.	66.242,44	66.242,44	60.243,49		72,00

5. Jarduketa ildo:

Kudeaketa aurreratu adimendun bat hedatzea erakundean, metodo eta lan tresna eraldatzaile eta berritzaileen bitartez.



% 100,00

Ordainketa kredituak

	Hasierako aurrekontua	Behin betiko aurrekontua	Gauzatzea	Sarrera lotua	Aurreratze gradua
Jarduketa ildo, guztira	136.685,62	136.685,63	124.307,32		
5.1 Ekintza Foru Aldundian kudeaketa aurreratua garatzeko plangintza aurrera eramatea.	49.762,61	49.762,62	45.256,10		65,00
5.2 Ekintza Kudeaketa aurreratuko aholkularitza proiektuak aurrera eramatea.	74.536,22	74.536,22	67.786,18		100,00
5.3 Ekintza Foru Aldundian Berrikuntza Kudeatzeko eredu diseinatu eta garatzea.	12.386,79	12.386,79	11.265,04		80,00


Departamentuaren jarduketa operatiboa

Urteko helburua: Erakundearen kudeaketako lan tresnak, aplikazio korporatiboak eta informazio sistemak hobetu eta mantentzeko garapen proiektuak eta jarduera operatiboak egitea.


Adierazlea	Neurri-unitatea	Azken balioa	2022-ko Aurreikuspena	2022-ko Errealak	Agintaldiko helburua
Kudeaketa sistemekin eta korporazioaren aplikazioekin lotuta abiarazitako edo martxan dauden proiektuen kop.	Kopurua	17,00	15,00	16,00	15,00
Kudeaketa sistemetan eta korporazioaren aplikazioetan hobekuntza proiektuak baloratzeko GFAREN zerbitzuei zuzendutako inkestaren "balorazio orokorra" elementuan lortutako batez bestekoa	Kopurua	7,86	7,80	8,22	7,80
Gobernu Onaren Foru Arauan zehaztutako publizitate aktiboko elementuen betetzearen portzentajea	Ehunekoak	85,42	88,00	85,22	100,00

Joera


Kudeaketa sistemekin eta korporazioaren aplikazioekin lotuta abiarazitako edo martxan dauden proiektuen kop. – Kopurua



Kudeaketa sistemetan eta korporazioaren aplikazioetan hobekuntza proiektuak baloratzeko GFaren zerbitzuei zuzendutako inkestaren "balorazio orokorra" elementuan lortutako batez bestekoa – Kopurua



Gobernu Onaren Foru Arauan zehaztutako publizitate aktiboko elementuen betetzearen portzentajea – Ehunekoa



Memoria

2022. urtean zerbitzuko jarduketa operatiboarekin zerikusia duten ekintzak garatu ditugu. Besteak beste, informazio-sistema korporatiboak mantentzen eta hobetzen aritu gara, Aldundiaren informazio kanal nagusiak lantzen jarritu dugu, zerbitzuaren oinarritzko kudeaketa eraman dugu eta IZFEren inbertsioen aurrekontu-partida kudeatu dugu.

Helburuari lotutako jarduketa ildoak eta ekintzak

1. Jarduketa ildoak:

Sistema korporatiboak mantentzea eta hobetzea



% 100,00

Ordainketa kredituak

	Hasierako aurrekontua	Behin betiko aurrekontua	Gauzatzea	Sarrera lotua	Aurreratze gradua
Jarduketa ildoak, guztira	140.886,36	140.886,36	128.127,64		
1.1 Ekintza					
Sistema korporatiboak garatu, mantendu eta hobetzea eta departamentuetan ezartzen laguntzea.	116.005,06	116.005,06	105.499,60		100,00
1.2 Ekintza					
Foru Aldundiaren Informazioaren Segurtasuna Kudeatzeko Sistema progresiboki ezartzea.	24.881,30	24.881,30	22.628,04		100,00

2. Jarduketa ildoak:

IZFEren inbertsioak



% 100,00

Ordainketa kredituak

	Hasierako aurrekontua	Behin betiko aurrekontua	Gauzatzea	Sarrera lotua	Aurreratze gradua
Jarduketa ildoak, guztira	6.749.299,00	7.747.087,00	6.274.729,88		
2.1 Ekintza					
IZFEren ekipamendu eta azpiegituretarako inbertsioak	6.749.299,00	7.747.087,00	6.274.729,88		93,00

3. Jarduketa ildoak:

Zerbitzuaren kudeaketa



% 69,81



% 30,19

Ordainketa kredituak

	Hasierako aurrekontua	Behin betiko aurrekontua	Gauzatzea	Sarrera lotua	Aurreratze gradua
Jarduketa ildoak, guztira	83.948,68	83.948,69	62.298,65		
3.1 Ekintza					
Zerbitzuaren kudeaketako ekintza operatiboak:	30.093,03	30.093,04	13.320,21		100,00
- Aginte Koadroa kudeatzea					
- Ezagutzaren Zaintza					
- Kontabilitatearen kudeaketa					
- Presentzia Kontrola					
- Ohiko jarduera gastuak eta dietak kudeatzea					
3.2 Ekintza					
Kudeaketa Aurreratua ezartzeko ekintzak (Aurrerabide)	33.175,08	33.175,08	30.170,73		85,00
3.3 Ekintza					
Kanpoko ekintzak: Euskalit ebaluazioak, Qepea sarea, Bikain, etab.	20.680,57	20.680,57	18.807,71		97,50

4. Jarduketa ildoak:

Aldundiaren informazio sistemak mantendu eta hobetzea



% 90,88

Ordainketa kredituak

	Hasierako aurrekontua	Behin betiko aurrekontua	Gauzatzea	Sarrera lotua	Aurreratze gradua
Jarduketa ildoak, guztira	101.149,21	101.149,22	83.903,64		
4.1 Ekintza					
Aldundiko informazio sistemak mantendu eta hobetzea: gipuzkoa.eus, egoitza elektronikoa, intranet, etab.	74.643,93	74.643,93	67.884,13		100,00
4.2 Ekintza					
Foru Jauregira bisita gidatuak antolatzea	18.093,03	18.093,04	8.369,07		100,00
4.3 Ekintza					
Go.5.3.1. Foru Aldundiaren intranetean gune bat eta adierazle sorta bat sortzea, GFako langileek dokumentuetan hizkuntza ez sexistaren erabilerari buruz izan ditzaketan zalantzak argitzeko.	8.412,25	8.412,25	7.650,44		25,00

GENERO BERDINTASUNEN PLANA

Programaren genero garrantzia: Txikia

Programak ukitzen duen kolektiboa:

Populazio osoa

Programak ukitutako gaitasuna(k):

Gizartean eta politikan parte hartu ahal izatea

Beharraren eboluzioa:

Gipuzkoako Foru Aldundiko kudeaketa publikoan genero ikuspuntua txertatzeko beharra.

Kuantifikazioa: 1.438,93 (% 0,02)

Kategoria	Kategoria %	Nola	Aurreratze gradua	Esleitutako adierazlea
Go.HO.5.1. Informazioaren sorreran, tratamenduan eta zabalkundearen sexu aldagaia sistematikoki txertatzen jarraitzea, eta pertsonen zein genero ikuspegia txertatzeko prozesuei eta prozedurei buruzko adierazleak sortzeko eta jasotzeko aurrerapausoak egitea.	(% 33,33)	Go.5.1.3. GFaren azterlanetan, planetan, txostenetan eta gainerako dokumentazio estrategikoetan datuak sexuaren arabera eta genero adierazleekin sartzea.	100,00	
Go. HO.5.3. GFAk zuzenean egiten dituen edo hirugarren pertsonen edo entitateen bidez GFarentzat egiten diren dokumentuetan eta euskarrietan hizkuntza ez sexista eta inklusiboaren erabileran sakontzen jarraitzea.	(% 33,33)	Go.5.3.1. Foru Aldundiaren intranetean gune bat eta adierazle sorta bat sortzea, GFAko langileek dokumentuetan hizkuntza ez sexistaren erabilerari buruz izan ditzaketan zalantzak argitzeko.	100,00	
Go.HO.6.2. GFAn mugimendu feministarekin eta berdintasunaren aldeko emakumeen elkarrekin solastatzeko gune egonkorrak sortzea eta ikusaraztea.	(% 33,33)	Go.6.2.3. Berdintasunerako Organoak sortutako on-line informazioaren irisgarritasuna hobetzea, gardentasuna eta kontu emateak bermatzeko.	100,00	

HIZKUNTZA BERDINTASUNEN PLANA

Beharraren eboluzioa:

Foru Aldundian kudeaketa eredu eta herritarrentzako zerbitzu aurreratuak ezartzeko orduan eta eraldaketa digitaleko proiektuak garatzeko orduan hizkuntza ofizialen kudeaketa txertatzea, euskara lan hizkuntza bezala indartuz.

Kuantifikazioa: 5.579,34 (% 0,07)

Kategoria	Kategoria %	Nola	Aurreratze gradua
1.3. Ingurune digitala	(% 16,67)	1.3.1. Webgune eta sare sozialen edukia	100,00
2.2. Bezeroekiko (persona fisikoak) eta herritarrekiko ahozko harremana zerbitzua eman edota produktua eskaintzeko orduan	(% 16,67)	2.2.2. Telefonoz, online eta aurrez aurre burututako ahozko harremanak	100,00
		2.2.3. Euskarazko eskaerari euskaraz emandako erantzunak	100,00
		Hitzarmena arautzen duten oinarrietan hizkuntz irizpideak txertatuko dira eta haien jarraipena egingo da.	100,00
3.3. Ahozko komunikazio bertikala eta horizontala	(% 50,00)	3.3.1. Erakundearen barruko lan-bileretako ahozkoak	100,00
3.4. Baliabide informatikoak	(% 16,67)	Neurria: IZFERi eskatzea aplikazio berriak aurkeztean hizkuntza ikuspuntua aplikatu dezala. Tresna: Zuzendaritzak IZFERi bidali beharreko komunikazioaren prestaketa. Egiatagarria: Urte amaieran IZFERi eskatuz aurkezpenen hizkuntzaren datua.	72,00



PARTAIDETZA PLANA

Beharraren eboluzioa:

Hobekuntzako proiektu giltzarrietan Herritarren nahiz Aldundiko langileen partaidetza bultzatzea.



Kuantifikazioa: 1.202,02 (% 0,02)

Kategoria	Kategoria %	Nola	Aurreratze gradua	Norekin
1. HAUSNARKETA ETA ERABAKIA HARTZEA	(% 100,00)		100,00	7. Bestelako partaidetza prozesuak

GJH

Kuantifikazioa: 7.478.677,92 (% 99,90)

Programari lotutako GJH zerrenda

GJH, Helburu eta Jarduketa ildoak		Ordainketa kredituak	Datozen urteetako gastuak
	16-BAKEA, JUSTIZIA ETA INSTITUZIO SENDOAK Garapen jasangarrirako gizarte baketsuak eta inklusiboak sustatzea, guztioi justiziarako sarbidea erraztea, eta erakunde eraginkorrak eta inklusiboak sortzea maila guztietan.	7.459.870,21	
Helburura	16.05 - Era guztietako ustelkeria eta eroskeria nabarmen murriztea.	50.468,79	
	Jarduketa ildoak		
	Erakundearen zuzentasun sistema sakontzea, zuzentasunaren esparruan egon daitezkeen arriskuen identifikazioa eta prebentzioa hobetu eta aurreratzeko.	50.468,79	
Helburura	16.06 - Kontuak emango dituzten erakunde eraginkor eta gardenak sortzea maila guztietan.	6.793.408,04	
	Jarduketa ildoak		
	Sistema korporatiboak mantentzea eta hobetzea	128.127,64	
	IZFEren inbertsioak	6.274.729,88	
	Zerbitzuaren kudeaketa	43.490,94	
	Aldundiaren informazio sistemak mantendu eta hobetzea	33.942,07	
	Gobernu irekia sustatzea, gardentasun eta kontu emate osatu eta ulergarri bat emanda.	45.837,72	
	Administrazio elektronikoa eta eraldaketa digitala garatzea, desburokratizazioan sakonduta, «zero paper» helburuaz.	142.972,47	
	Kudeaketa aurreratu adimendun bat hedatzea erakundean, metodo eta lan tresna eraldatzaile eta berritzaileen bitartez.	124.307,32	
Helburura	16.10 - Informaziorako sarbide publikoa bermatzea eta oinarritzko askatasunak babestea, estatuko legeen eta nazioarteko akordioen arabera.	615.993,38	
	Jarduketa ildoak		
	Aldundiaren informazio sistemak mantendu eta hobetzea	42.311,14	
	Arreta zerbitzu aurreratua eta bateratua abiaraztea (bertatik bertarakoa, telefono bidezkoa, Internet bidezkoa, sare sozialen bidezkoa), arreta nahiz informazio osatu, eguneratu eta eskuragarria emateko.	527.844,52	
	Gobernu irekia sustatzea, gardentasun eta kontu emate osatu eta ulergarri bat emanda.	45.837,72	
	17-HELBURUAK LORTZEKO ALIANTZA Ezarpen-baliabideak sendotzea eta Garapen Jasangarrirako Munduko Ituna biziberritzea.	18.807,71	



GJH, Helburu eta Jarduketa ildoak		Ordainketa kredituak	Datozen urteetako gastuak
Helbubura	17.17 - Arlo publikoan, publiko-pribatuan eta gizarte zibilean aliantza eraginkorrak sor daitezen sustatzea, aliantzen baliabideak lortzeko estrategiak eta esperientzia baliatuz.	18.807,71	
Jarduketa ildoak			
	Zerbitzuaren kudeaketa	18.807,71	
Guztira		7.478.677,92	



PROGRAMAREN AURREKONTUAREN LABURPENA / RESUMEN DEL PRESUPUESTO DEL PROGRAMA

Gastuen kapituluak Capítulos gastos	Hasierako aurrekontua Ppto Inicial	Behin betiko Aurrekotua Ppto Definitivo	Baimendua Autorizado	Xedatua Dispuesto	Gauzatzea Ejecución	Gauzatze % % Ejecución
1. LANGILERIA GASTUAK/ GASTOS DE PERSONAL	1.117.523,00	1.117.523,00	1.017.887,94	1.017.887,94	1.017.887,94	91,08
2. ONDASUN ETA ZERBITZUEN GASTU ARRUNTAK/ GASTOS CORRIENTES EN BIENES Y SERVICIOS	307.453,00	307.453,00	273.215,83	273.215,83	193.702,80	63,00
3. FINANTZA GASTUAK/ GASTOS FINANCIEROS						
4. TRANSFERENTZIA ARRUNTAK/ TRANSFERENCIAS CORRIENTES						
Eragiketa arruntak, guztira Total operaciones corrientes	1.424.976,00	1.424.976,00	1.291.103,77	1.291.103,77	1.211.590,74	85,03
5. KONTINGENTZIETARAKO ETA BESTE EZUSTEKO BATZUETARAKO FUNTSA FONDO DE CONTINGENCIA Y OTROS IMPREVISTOS						
6. INBERTSIO ERREALAK/ INVERSIONES REALES						
7. KAPITAL TRANSFERENTZIAK/ TRANSFERENCIAS DE CAPITAL	6.749.299,00	7.747.087,00	6.274.729,88	6.274.729,88	6.274.729,88	80,99
Kapitaleko eragiketak, guztira Total operaciones de capital	6.749.299,00	7.747.087,00	6.274.729,88	6.274.729,88	6.274.729,88	80,99
8. AKTIBO FINANTZARIOAK/ ACTIVOS FINANCIEROS						
9. PASIBO FINANTZARIOAK/ PASIVOS FINANCIEROS						
Finantza eragiketak, guztira Total operaciones financieras						
Guztira / Total	8.174.275,00	9.172.063,00	7.565.833,65	7.565.833,65	7.486.320,62	81,62



PROGRAMAREN GAUZATZEAREN LABURPENA / RESUMEN DE LA EJECUCIÓN DEL PROGRAMA

Planen zenbateko osoa, kapituluka Total planes/capítulos	Ordainketa kredituak Créditos de pago		Konpromiso kredituak Créditos compromiso	
	Estrategikoa Estratégico	Operatiboa Operativo	Estrategikoa Estratégico	Operatiboa Operativo
1. LANGILERIA GASTUAK/ GASTOS DE PERSONAL	757.812,24	260.085,37		
2. ONDASUN ETA ZERBITZUEN GASTU ARRUNTAK/ GASTOS CORRIENTES EN BIENES Y SERVICIOS	179.456,31	14.244,56		
3. FINANTZA GASTUAK/ GASTOS FINANCIEROS				
4. TRANSFERENTZIA ARRUNTAK/ TRANSFERENCIAS CORRIENTES				
Eragiketa arruntak, guztira Total operaciones corrientes	937.268,55	274.329,93		
5. KONTINGENTZIETARAKO ETA BESTE EZUSTEKO BATZUETARAKO FUNTSA FONDO DE CONTINGENCIA Y OTROS IMPREVISTOS				
6. INBERTSIO ERREALAK/ INVERSIONES REALES				
7. KAPITAL TRANSFERENTZIAK/ TRANSFERENCIAS DE CAPITAL		6.274.729,88		
Kapitaleko eragiketak, guztira Total operaciones de capital		6.274.729,88		
8. AKTIBO FINANTZARIOAK/ ACTIVOS FINANCIEROS				
9. PASIBO FINANTZARIOAK/ PASIVOS FINANCIEROS				
Finantza eragiketak, guztira Total operaciones financieras				
Guztira / Total	937.268,55	6.549.059,81		
Gauzatze gradua / Grado de ejecución: %	10,22	71,40		



PROGRAMAREN AURREKONTUAREN LABURPENA / RESUMEN DEL PRESUPUESTO DEL PROGRAMA

Sarreraren kapituluak Capítulos de ingresos	Hasierako aurrekontua Ppto Inicial	Behin betiko Aurrekotua Ppto Definitivo	Gauzatze Ejecución	Gauzatze % % Ejecución	Gastuari lotutakoak Afectados a gasto
1. ZUZENEKO ZERGAK/ IMPUESTOS DIRECTOS					
2. ZEHARKAKO ZERGAK/ IMPUESTOS INDIRECTOS					
3. TASAK ETA BESTELAKO SARRERAK/ TASAS Y OTROS INGRESOS					
4. TRANSFERENTZIA ARRUNTAK/ TRANSFERENCIAS CORRIENTES					
5. ONDARE SARRERAK/ INGRESOS PATRIMONIALES					
Eragiketa arruntak, guztira Total operaciones corrientes					
6. INBERTSIO ERREALAK BESTERENTZEA/ ENAJENACION DE INVERSIONES REALES					
7. KAPITAL TRANSFERENTZIAK/ TRANSFERENCIAS DE CAPITAL			-63.770,14		
Kapitaleko eragiketak, guztira Total operaciones de capital			-63.770,14		
8. AKTIKO FINANTZARIOAK/ ACTIVOS FINANCIEROS					
9. PASIBO FINANTZARIOAK/ PASIVOS FINANCIEROS					
Finantza eragiketak, guztira Total operaciones financieras					
Guztira / Total			-63.770,14		

Programaren datu orokorrak

Departamentua:	02 - GOBERNANTZA DEPARTAMENTUA
Atala:	0220 - Zerbitzuetako eta Administrazioaren Berrikuntzako eta Eraldaketako Zuzendar
Programa:	210 - Aldundiko Zerbitzu Orokorrak
Funtzionala:	920 - Administrazio orokorra

Programa mota:

Finalista

Misioa:

Departamentuei eta foru eta toki entitateei oinarrizko zerbitzuak eta hornidurak ematea, bai zuzenean, bai kontratazioen bidez edo kontratazio zentralaren bidez, eraginkortasuna eta gardentasuna hobetzeko.

Egoeraren diagnostikoaren eboluzioa:

Zerbitzu orokorren funtzionamendu-mailari eustea eta hobetzea lortu da, oinarrizko zerbitzuak eta hornidurak modu eraginkor eta gardenean eskaintzeko eginkizuna betez. Ezarritako ekintzei esker, kudeaketa zentralizatua finkatu ahal izan da, espazioak behar aldakorretara egokitu ahal izan dira eta telefoniaren sektorean hobetzeko aukerak aprobetxatu ahal izan dira. Horrek guztiak zerbitzuen eraginkortasuna eta gardentasuna hobetzen lagundu du, ezarritako helburuak betez.

Beharren eboluzioa:

Horniduren eta zerbitzuen kudeaketa eraginkorra izan da, beharrak identifikatuz, ebaluatuz eta behar bezala planifikatuz, modu eraginkorrean asetzeko. Beste erakunde batzuekiko komunikazioari eta koordinazioari esker, baliabideak optimizatu dira eta zerbitzuak emateko eraginkortasuna bermatu da. Epe labur eta luzerako konponbideak proposatu beharko liriteke arazo horri aurre egiteko.

Hala ere, Aldundiko plantillaren etengabeko hazkundea arazo bat sortzen ari da, sailen funtzionamendu ezin hobe bermatzeko behar duen espaziorik eza, hain zuzen. Era berean, etengabeko hobekuntzak bilatzen jarraitu behar da, zerbitzuak eta hornidurak ematean eraginkortasuna eta gardentasuna hobetzeko, ezarritako helburuak betez.

Nori zuzendua:

Departamentuak eta foru eta toki entitateak.

Programaren estrategia.

1. Baliabideak (inputak):

Programako inbertsioen plantila eta gastuaren aurrekontuak, behar diren zerbitzu kontratak barne (garbiketa, segurtasuna, inprimategia).

2. Garatu beharreko

* Funtzionamendurako ondasun eta zerbitzuak departamentuen eskura jartzea: bulegoko materiala, argindarra, gasa, ekipo informatikoak, ibilgailuak, altzariak, garbiketa zerbitzua segurtasuna, posta, telefonia, eta abar.

Ibilgailu ofizialen zerbitzua eskaintzea, gidariarekin nahiz gidaririk gabe.

*Bulegoetako dokumentazio administratiboa (artxibo erdi-aktiboa) jaso, artxibatu eta kudeatzea (mantenua, lagapenak, kontsulta, espurgoa eta transferentziak Artxibo Historikora).

*Zerbitzu hauek eskaintzea: estafeta, atezaintza eta manipulazioa.

Gipuzkoako Foru Aldundiko departamentuentzako argitalpenak, inprimakiak eta paperezko bestelako lanak inprimatzea, bitarteko propioen (Inprimategia) edo kanpoko bidez.

*Esparru akordioak esleitzea, Foru Kontratazioen Zentralaren bidez, udalen nahiz udal eta foru entitateen interesekoak diren ondasun eta zerbitzu kontratazioak: argindarra, gasa, C gasolioa, bulegoko materiala, posta, lan arriskuen prebentzioa, eta abar.

3. Ondasun eta Zerbitzuak (outputak):

Zerbitzuak eta hornidurak: bulegoko materiala, argindarra, gasa, ekipo informatikoak, ibilgailuak, altzariak, garbiketa zerbitzua, segurtasuna, posta, telefonia, eta abar.

Zuzenean eskaintzen diren zerbitzuak: garraioa (gidariarekin edo gidaririk gabe), dokumentazio administratiboaren zaintza eta kudeaketa, inprimatze lanak, eta abar.

Udalen nahiz udal eta foru entitateen zerbitzu eta hornidura kontratuak.

Programaren arau esparrua:

9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuena
3/2011 Foru Dekretua, Gipuzkoako Foru Aldundiko Foru Kontratazioen Zentrala eta Zerbitzu Orokorretako Kontratazio Mahaia arautzekoa.


2020-2023 KUDEAKETA PLAN ESTRATEGIKOARI LOTUTAKO DEPARTAMENTU JARDUKETA

Urteko helburua: Barne antolaketaren eraldaketa sustatzea, egiturei, profilei eta pertsonei dagokienez.


Adierazlea	Neurri-unitatea	Azken balioa	2022-ko Aurreikuspena	2022-ko Errealak	Agintaldiko helburua
Kontratatzailearen profileen eta gardentasunekoan argitaratutako kontratu txikien fitxategi automatizatuen kop.	Kopurua	4,00	4,00	0,00	12,00
Erretiroa hartuko duten teknikarien % 70ean belaunaldi ondorengotza ziurtatzeko prozesuak antolatzea.	Ehunekoa	30,00	50,00	25,00	70,00
Emakumezkoak		0,00	25,00	15,00	35,00
Gizonezkoak		0,00	25,00	10,00	35,00

Joera

Kontratatzailearen profileen eta gardentasunekoan argitaratutako kontratu txikien fitxategi automatizatuen kop. – Kopurua



Erretiroa hartuko duten teknikarien % 70ean belaunaldi ondorengotza ziurtatzeko prozesuak antolatzea. - Ehunekoa



Memoria

Aldi honetan, eraldaketa-prozesu bat egin dugu gure zerbitzuaren barne-antolaketan, haren funtzionamendua hobetzeko helburuarekin. Jarraian, egindako ekintza batzuk eta aurkitutako erronkak aipatuko ditugu:

Egiturak eta funtzioak berrikustea: Zerbitzuan dauden antolaketa-egituren eta funtzioen azterketa egin zen, eta horrek hobetu beharreko arloak identifikatzea ahalbidetu zuen. Arlo batzuetan aldaketak egin badira ere, egiturak egungo beharretara egokitzearekin lotutako erronkei aurre egin behar zaie oraindik.

Aldaketa eta lankidetzaren sustatzea: Barne-komunikazioko estrategiak ezarri ziren eta langileek eraldaketa-prozesuan parte hartzea sustatu zen. Aldaketaren garrantziaz gehiago jabetzea lortu den arren, oraindik ere oztupoak daude taldeen arteko lankidetzaren eraginkorrari eta aldaketara egokitzeari dagokionez.

Laburbilduz, barne-antolaketaren eraldaketa-prozesuak erronkei aurre egin die eta modu partzialean egin du aurrera. Egiturak hobetzeko eta aldaketa sustatzeko ahaleginak egin badira ere, oraindik implementazio- eta doikuntza-etapa batean gaude. Lanean jarraituko dugu identifikatutako zailtasunak gainditzeko eta gure zerbitzuak emateko antolaketa eraginkorragoa eta eraginkorragoa lortzeko.

Helburuari lotutako jarduketa ildoak eta ekintzak

1. Jarduketa ildoak:

Koordinazio irizpideak indartzea kontratazio publikoaren esparruan.

Ordainketa kredituak


	Hasierako aurrekontua	Behin betiko aurrekontua	Gauzatzea	Sarrera lotua	Aurreratze gradua
Jarduketa ildoak, guztira	45.224,78	45.224,78	42.128,57		
1.1 Ekintza					
Kontratazio berriak sustatzea	45.224,78	45.224,78	42.128,57		17,00

Urteko helburua: Erakundearen kudeaketa hobetu eta berritzea, izan dadin erakunde hurbilago, irekiago eta eragimen handiagoko bat.


Adierazlea	Neurri-unitatea	Azken balioa	2022-ko Aurreikuspena	2022-ko Errealak	Agintaldiko helburua
